



OLABERRIKO UDALA  
AYUNTAMIENTO DE OLABERRIA  
(GIPUZKOA)

**2019KO URRIAREN 24an EGINDAKO EZ-OHIKO OSOKO BILKURAREN AKTA.**

Olaberrian, 2019ko urriaren 24an, arratsaldeko 18:04 izanik Udaletxeko Pleno Aretoan bildu dira alkatea den Jokin Garmendia Asurabarrena eta Nerea Castaño Irazola (O.E.O), Elixabet Canales Segurola (O.E.O), Mainer Agirre Mugika(O.E.O), Irene Irastorza Asurabarrena (O.E.O), Aitor Urkiola Ugartemendia ( EH-BILDU ) eta Pedro José Jauregui García (EH-BILDU) zinegotziak.

Bertan dago eta fede ematen du Idoia Arévalo Benito Idazkari Kontu-hartzaileak.

Osoko Bilkura legez osatzeko beharrezkoa den zinegotzi kopurua bertaratu dela egiaztatu ondoren, gai zerrendako lehenengo puntua aztertzeari ekiten dio Udalbatzak.

Alkateak hitza hartzen du esateko, EH-BILDU taldeak Espainiako Auzitegi Gorenak Kataluniako buruzagi independentisten aurka emandako epaiari buruzko adierazpen instituzionala aurkeztu ziotela gai zerrendan sartzeko.

Azkenean ez zuela zerrendan sartu eta orain zinegotziei eskatzen die bozkatu dezaten gaia gai zerrendan sartzeko edo ez.

**ACTA DEL PLENO EXTRAORDINARIO CELEBRADO EL 24 DE OCTUBRE DE 2019.**

En Olaberria, a 24 de octubre de 2019, siendo las 18:04 horas se han reunido en el Salón de Plenos del Ayuntamiento el alcalde, Jokin Garmendia Asurabarrena y los concejales, Nerea Castaño Irazola (O.E.O), Elixabet Canales Segurola (O.E.O), Mainer Agirre Mugika (O.E.O) , Irene Irastorza Asurabarrena (O.E.O), Aitor Urkiola Ugartemendia (EH-BILDU) y Pedro José Jauregui García (EH-BILDU)

Asiste y da fe del acto la Secretaria-Interventora Idoia Arévalo Benito.

Comprobado que asiste el número suficiente de concejales para la válida constitución de la Sesión Plenaria, la Corporación pasa a estudiar el primer asunto del orden del día.

El Alcalde toma la palabra para decir que el grupo EH-BILDU le presentó una declaración institucional a cerca de la Sentencia dictada por el Tribunal Supremo contra los dirigentes independentistas catalanes, para ser incluida en el orden del día.

Teniendo en cuenta que al final no la incluyó, solicita ahora a los corporativos que voten si incluirla o no.



OLABERRIKO UDALA  
AYUNTAMIENTO DE OLABERRIA  
(GIPUZKOA)

Bozketa egin ondoren, gai zerrendan sartzea erabakitzen da aho-batez.

Tras la votación, se decide por unanimidad, que el tema se incluya en el orden del día.

**OGASUNA ETA UDAL ZERBITZU TEKNIKOAK**

**HACIENDA Y SERVICIOS TÉCNICOS  
MUNICIPALES**

**3.000 eurotik gorako fakturen onarpena.**

**Aprobación de las facturas superiores a  
3.000 euros.**

Hauek dira Osoko Bilkurara aurkeztzen diren fakturak, bere onarpenerako:

Estas son las facturas que se presentan al Pleno para su aprobación:

ZBK.	IZENA	CIF	ADO	AZALPENA	KOPURUA
1	GIPUZKOAKO URAK			980001573	63.659,77 €
2	GIPUZKOAKO URAK			980001574	14.265,34 €
3	GIPUZKOAKO URAK			970000205	49.029,37 €
4	LIMPIEZAS ABANDO S.L.	B48848634		1910475	4.871,93 €
5	IZFE	A20456976		2019/1289	5.792,67 €
6	ZERKI KIROL ZERBITZUAK	F75042309		188	6.655,00 €
7	ORUE-ETXEBERRIA ITURRI, JON	72430899N		29	10.991,64 €
8	IMANOL GALARRETA LASA	15975599		71	6.828,03 €
9	BASTIDA KEREJETA, MARIA JESUS	15952400		8399	4.860,00 €

Ondoren, fakturen onarpenerako bozketa hasten da, faktura zerrenda gehiengo absolutuz onartzen delarik, EH-BILDU taldeko zinegotzien abstentzioarekin.

Se procede a la votación de la propuesta, quedando aprobada la relación de facturas por mayoría absoluta, con la abstención de los concejales del grupo EH-BILDU.

EH-BILDU taldeko zinegotzia den Aitor Urkiola jaunak hitza hartzen du honako aipamen hauek eginez:

El concejal del grupo EH-BILDU Aitor Urkiola toma la palabra y manifiesta lo siguiente:



OLABERRIKO UDALA  
AYUNTAMIENTO DE OLABERRIA  
(GIPUZKOA)

*“ Orue-Etxeberria Iturri Jon abokatuaren faktura 10.991 euroakoa ez degu onartzen. Aurreko legegintzalditik datorren gai bat da. Bertan eraman den prozedimentuarekin ez gaude ados. Abokatuak kobratutako fakturak ere gehiegizkoak direla iruditzen zaigu. Begiratu beharrekoak lirateke.”*

### Diruzaintzaren egoera: informazioa.

Udal-kideei, 2019ko urriaren 15ari dagokion diruzaintzaren egoera aurkeztu zitzaien joan zen batzorde informatzailean.

Udalak, kutxan, banketxe ezberdinetako kontuetan eta epe laburrera eginiko inbertsioen artean, guztira Udal eraikinen garbiketa kontratuaren esleipena. **3.062.530,38 euro** ditu.

Udal-kideak jakinaren gainean gelditzen dira.

- **5/2019 kreditu aldaketa, kreditu transferentzia modalitatea: behin-behineko onarpena.**

Joan zen batzorde informatzailean udal-kideei gaiaren berri eman zitzaien.

Guztia aztertu eta behar adina eztabaidatu ondoren, Udalbatzak zera erabakitzen du:

**BAKARRA:** Aho-batez, onarpena ematea 5/2019 zenbakia duen Kreditu Aldaketa Espedienteari, kreditu transferentzia modalitatean, Udalaren 2019ko aurrekontuaren barruan, edukia honako hau izanik:

### Situación de tesorería: información.

Se presenta a los corporativos en la pasada comisión informativa la situación de tesorería a fecha 15 de octubre de 2019.

El Ayuntamiento dispone entre la caja, las cuentas en las distintas entidades y las inversiones a corto plazo, un total de **3.062.530,38 euros**.

Los corporativos quedan al corriente.

- **Modificación de créditos 5/2019, modalidad transferencia de créditos: aprobación inicial**

Se dio cuenta a los corporativos en la pasada comisión informativa.

Después de estudiarlo todo y debatirlo suficientemente, el Ayuntamiento Pleno acuerda:

**ÚNICO:** aprobar por unanimidad el Expediente de Modificación de Créditos, nº 5/2019 en la modalidad de transferencia de créditos, dentro del Presupuesto del Ayuntamiento correspondiente al ejercicio de 2019, cuyo contenido es el siguiente:



OLABERRIKO UDALA  
AYUNTAMIENTO DE OLABERRIA  
(GIPUZKOA)

**Kreditua transferituko duten gastu partidak (bajak)**

<b>Partida</b>	<b>Izena</b>	<b>Hasierako kreditua</b>	<b>Murrizketa</b>	<b>Amaierako kreditua</b>
1 0000.601.153.20.03 2019	IHURRE AUZKO OBRAK - 2019	166.020,00	7.891,40	158.128,60
	<b>GUZTIRA</b>	<b>166.020,00</b>	<b>7.891,40</b>	<b>158.128,60</b>

**Kreditua jasoko duten gastu partidak (altak)**

<b>Partida (*)</b>	<b>Izena</b>	<b>Hasierako kreditua</b>	<b>Gehikuntza</b>	<b>Amaierako kreditua</b>
	IBIGAILU ELEKTRIKOAREN KONPONKETA	0,00	7.891,40	7.891,40
	<b>GUZTIRA</b>	<b>0,00</b>	<b>7.891,40</b>	<b>7.891,40</b>

- **2020. urterako Ordenantza Fiskalak: behin-behineko onarpena**
- **Ordenanzas Fiscales 2020. Aprobación inicial.**

Gaia udal-kideei azaldu zitzairen joan zen batzorde informatzailean.

Se expuso el tema a los corporativos en la pasada comisión informativa.

Gaia bozkatzen da, 2020ko urtarrilaren 1etik aurrera indarrean egongo diren Ordenantza Fiskalen aldaketa behin-behinekoz onartzen da gehiengo absolutuz, EH-BILDU taldeko zinegotzien abstentzioarekin, aldaketen proposamena honako hau izanik:

Se procede a la votación aprobándose inicialmente, por mayoría absoluta con la abstención de los concejales del grupo EH-BILDU, la modificación de las Ordenanzas Fiscales con efectos a partir del 1 de enero de 2020, siendo la propuesta de la



OLABERRIKO UDALA  
AYUNTAMIENTO DE OLABERRIA  
(GIPUZKOA)

modificación la siguiente:

**1.- Zaborra biltzeko zerbitzua eskaintzegtiko Tasa:** zaborraren kudeaketak udalari suposatutako kostua eta tasen bidez jasotako diruaren arteko oreka-eza zuzentzeko helburuarekin, %12ko igoera proposatzen da, tarifa honela geratuz:

Etxebizitzak:	112 €
Elkarte errekreatiboak:	223 €
Taberna eta jatetxeak:	303 €

Establ. Komertzialak eta industrialak:

- 0 langile	112 €
- 1-5 langile arte	300 €
- 6 eta 20 langile bitartean	383 €
- 21 eta 40 langile bitartean	540 €
- 40 langile baino gehiago	594 €

**1.- Tasa por la Prestación del Servicio de Recogida de Basura:** Con el fin de ir equiparando el gasto que supone al Ayuntamiento la gestión de la basura con los ingresos recibidos vía tasa, se propone una subida del 12% aproximadamente, quedando las tarifas del siguiente modo:

Viviendas :	112 €
Sociedades recreativas:	223 €
Bares y restaurantes:	303 €

Establec. Comerciales e industriales:

-0 trabajadores	112 €
- De 1 a 5 trabajadores	300 €
-De 6 a 20 trabajadores...	383 €
-De 21 a 40 trabajadores	540 €
-Más de 40 trabajadores....	594€

**2.- Tenis Pisten erabileragatik ordaindu beharreko Tasa:** Padel pisten autokudeaketa sistema berean sartzeko helburuarekin, bonuen aukera eta olaberriarrentzat prezio berezia ezabatzea proposatzen da.

**2.- Tasas por utilización de las pistas de tenis:** Se propone la eliminación de los bonos y del precio especial para los vecinos de Olaberria con el fin de introducir la gestión de las pistas de tenis en el mismo sistema de autogestión de las pistas de padel.

**3.- Kultura saileko ikastaroengatik tasak:**

- Kirol-ikastaroak: sinplifikatzeko helburuarekin eta hauek jasan ditzaketen aldaketak malgutzeko xedez, ikastaro guzti hauek talde batean sartzea proposatzen da, prezio berdina mantenduz.

**3.- Tasas por cursillos del área de Cultura**

Con el fin de simplificar y flexibilizar estos cursos y sus posibles modificaciones, se propone introducir todos los cursos deportivos en un mismo saco – sin especificarlos y así permitir cierta flexibilidad ante cualquier cambio-



OLABERRIKO UDALA  
AYUNTAMIENTO DE OLABERRIA  
(GIPUZKOA)

- Txalaparta eta pilota ikastaroak ezabatzea proposatzen da.
- Tailako ikastaroaren prezioa 54 eurotik 60 eurora igotzea proposatzen da.

Era berean zera erabakitzen dute: aipatu akordioa eta horretarako izapidetutako espedienteak jendaurreko informazioan jartzea 30 laneguneko epean, Gipuzkoako Toki Ogasunak arautzen dituen uztailaren 5eko 11/1989 Arau Foralaren 16.1 artikulua ezartzen duenaren arabera, aldizkari ofizial honetan eta Udaletxeko iragarki taulan iragarkiak ezarriz, aipatu artikulua 2. zenbakiak eskatzen duenaren arabera.

- *Agerian dauden lekua:* Udaletxe honetako Idazkaritza.
- *Aztertze eta bere kasuan erreklamazioak egiteko epea:* 30 lanegun, iragarki hau Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta hurrengo lanegunetik aurrera.
- *Erreklamatzeko legitimatuak daudenak:* Uztailaren 5eko 11/1989 Foru Arauaren 17. artikulua aipatzen dituenak.
- *Erreklamazioak aurkezteko tokia:* Udaletxeko Sarrera Erregistro Orokorrean.
- *Erreklamazioa aurkezten zaion organoa:* Udalbatza.

manteniendo el mismo precio, eliminar los cursos de txalaparta y pelota e incrementar el precio del curso de talla, de 54 euros a 60 euros.

Asimismo, se acuerda someter a información pública el acuerdo adoptado y el expediente al efecto instruido durante un plazo de 30 días hábiles, en cumplimiento de lo dispuesto en el artículo 16.1 de la Norma Foral 11/1989, de 5 de julio, Reguladora de las Haciendas Locales de Gipuzkoa, mediante publicación de anuncios en este medio oficial y en el tablón de anuncios de la Casa Consistorial, según exige el número 2 del citado artículo.

- *Lugar donde se hallan de manifiesto:* En la Secretaría de este Ayuntamiento.
- *Plazo para examinarlos y en su caso para formular las reclamaciones:* 30 días hábiles contados a partir del siguiente hábil a la inserción de este anuncio en el Boletín Oficial de Gipuzkoa.
- *Legitimados para reclamar:* Los que relaciona el artículo 17 de la Norma Foral 11/1989 , de 5 de julio.
- *Lugar de presentación:* En el Registro General de Entrada del Ayuntamiento.
- *Órgano ante el que se recurre:* Ayuntamiento Pleno.



OLABERRIKO UDALA  
AYUNTAMIENTO DE OLABERRIA  
(GIPUZKOA)

Informazio honen arauzko epea igaro ondoren inolako erreklamazio edo oharrik aurkeztu ez bada, hartutako akordioak eta aipatu dokumentuak behin betikoak kontsideratuko dira, beste erabakirik hartzeko beharrik egon gabe.

EH-BILDU taldeko zinegotzia den Aitor Urkiola jaunak hitza hartzen du honako aipamen hauek eginez:

Una vez transcurrido el plazo reglamentario de esta información sin que haya producido reclamación u observación alguna, se tendrán por aprobados definitivamente los acuerdos adoptados y los documentos expresados, sin necesidad de nuevo acuerdo.

El concejal del grupo EH-BILDU Aitor Urkiola toma la palabra y manifiesta lo siguiente:

*“Aurrekontuekin batera gai garrantzitsuenetakoak dira ordenantza fiskalak. Esan beharra dago, baxuenetakoak ditugula herrian, baina badaude beste atal batzuk aurrera begira landu nahiko genituzkeenak. Aste bat aurretik batzorde bat eginda ez du marjenik ematen enmiendak behar bezela egiteko. Aurretiaz egin beharreko lanketa eskatzen dute ordenantza fiskalek. “*

• **Espainiako Auzitegi Gorenak Kataluniako buruzagi independentisten aurka emandako epaiari buruzko adierazpen instituzionala**

• **Declaración institucional a cerca de la Sentencia dictada por el Tribunal Supremo contra los dirigentes independentistas catalanes.**

Alkateak hitza hartzen du zera adierazteko:

El Alcalde toma la palabra para manifestar lo siguiente:

“Gure taldearen jarrera betidanik izan da Udalerritik kanpoko gaiak ez jorratzea eta kanpo gelditzea. Dena den, horrelako gaiak aurkezten direnean, haien inguruan eztabaidatzea interesgarria iruditzen zaigu eta sartu egingo ditugu, baina talde bezala, ez dugu posturarik hartuko bozkatzerako garaian, norberak bere kontzientziak agintzen dionaren arabera bozkatuko du, era indibidual batean”

Gaia bozkatzen da, gehiengo sinplez onartuz, EH-BILDU taldeko aldeko botoarekin eta O.E.O. taldearen abstentzioarekin.

Se procede a la votación, quedando aprobada por mayoría simple, con el voto a favor del grupo EH-BILDU y la abstención del grupo O.E.O.



OLABERRIKO UDALA  
AYUNTAMIENTO DE OLABERRIA  
(GIPUZKOA)

EH-BILDU taldeko zinegotzia den Aitor Urkiola jaunak adierazpena irakurtzeari ekiten dio:

El concejal del grupo EH-BILDU Aitor Urkiola pasa a dar lectura la declaración institucional:

“Hasieran sarrera bat egin dugu. 1931an goierriko herri batzuetako udal aktatan, (Beasain, Itsasondo, Arama, Zaldibia...)Autodeterminazioa eskatzen zuten akta batzuk agertu ziren. Horren harira, eta Gure Esku Dagok ( Erabakitzeko eskubidearen alde diharduen herritarrez osatutako elkartea) ekimen bat antolatu zuen. 2011. Urtean Itsasondon, Goierriko hamazazpi alkatek babesia emanaz argazki bat atera zuten eta biltzearen arrazoiak edo titularrak honela dio: **“Itsasondo goierri 1931-2011 Autodeterminazioa gero eta argiago”**”.



Bertan daude, ezkerretik hasita zutik, Alzaga (Indep), Zegama (Indep), Zerain (Indep), Zaldibia ( Eae-Anv), Olaberria (Indep), Ataun (Indep), Lazkao ( Eaj-Pnv), Mutiloa (Indep), Idiazabal (Indep), Gaintza (Indep), Ordizia (EA), Arama (Indep), Itsasondo (Eae-Anv), Legorreta (Eae-Anv), Beasain (Eaj-Pnv), Gabiria ( Indep), eta Segura (Indep).





OLABERRIKO UDALA  
AYUNTAMIENTO DE OLABERRIA  
(GIPUZKOA)

**Honen harira Autodeterminazioak historikoki izan duen ibilbideaz honako irakurketa egiten degu:**

### ZER DA ERABAKITZEKO ESKUBIDEA EDO AUTODETERMINAZIO ESKUBIDEA?

**Harluxet** entziklopediaren arabera: "Herri bateko biztanleek beren estatutu politikoa libreki hautatzeko daukaten eskubidea da" Nazio Batuen Erakundearen arabera, estatu independente izateko edo bestelako eraketa politikoren bat aukeratzeko ekintza politiko-juridikoa da autodeterminazioa erreferendun espezifikotan edo beste eraren batera gauzatzen dena.

Herrien autodeterminazio-eskubideari buruzko historia, XIX. Mendearen hasieratik dator eta Europarren artean oso eztabaidagai garrantzitsua izan zen. Nazionalitateen printzipioa lehenik, Frantziako eta Iparramerikako iraultzek aldarrikatu zuten eta ondoren Europako beste herrialdetara hedatu zen. Orduan, Greziak, Belgikak, Italiak, Alemaniak autodeterminazio-eskubidean oinarriturik burutu zuten bere batasun nazionala. Estatu hauen konstituzioetan ez zen ordea printzipio hori jaso. 1917ko urriko iraultzatik sortutako estatu Boltxebikea izan zen, Autodeterminazio-eskubidea legez onartu zen lehena.

1945eko ekainan Nazio Batuen Erakundea sortu zen, eta 1948ko abenduan, herrien autodeterminazio-eskubidea hitzartuko zituzten eta hortik dator Giza eskubideen deklarazio unibertsalaren 55. artikulua NBEak onartuta. Gaur egun ia munduko estatu independente guztiak dira kide txiki batzuk izan ezik ( Suitza, Andorra, Liechtenstein, Monako, Vatikanoko hiria, Taiwan...) 55.artikulua: Nazioen arteko harreman baketsuak eta adiskidetsuak izateko beharrezkoak diren egonkortasun eta ongizate-baldintzak herrien eskubide-berdintasunaren eta erabakitze eskubide librearen printzipioetan oinarrituta sortzeko helburuarekin, erakundeak honako hauek sustatuko ditu:

- Denentzako lan iraunkorra eta ekonomia eta gizarte-aurrerapen eta garapenerako baldintzak.
- Ekonomia, gizarte, osasun eta beste arloetako nazioarteko arazoaren konponbidea. Kultura eta hezkuntza nazioarteko elkar-lana.
- Guztien giza eskubideen eta oinarritzko askatasunen errespetu orokor eta erabatekoa, arraza, sexu, hizkuntza edo erlijio-arrazoiengatik berezkeriarik gabe.

1976ko Aljer-eko " Herrien Eskubideen Deklarazioa" NBEk 1948an emandakoa osatzera etorri zen. 1990ean CONSEUK, Europako Estaturik Gabeko Nazioen Konferentziak, " Herrien Eskubide Kolektiboen Deklarazio Unibertsala" onartu zuten Bartzelonan. Eskubide horren arabera sortu dira estatu independente berriak: Lituania, Estonia, Letonia, Ukraina, Eslovenia, Kroazia, ea... Alemaniaren batasuna ere autodeterminazio-eskubidearen izenean onartu zuten mendebaldeko beste estatuak.

Garaikoetxea buru zuen lehen Jaurlaritza hark inolako zalantzarik gabe aldarrikatu zuen geure etorkizuna erabakitzeko dugun eskubidea 80ko hamarkadan.

1988ko urtarrilean sinatu zen Ajuria-Eneako Itunak onartzen zuen espainiar Estatuak errespetatu eta onartu egin beharko zuela gehiengoaren borondatea; baldintza bakarra jartzen zuen, bide demokratikoak, bakezkoak, erabiliz adieraziko zela borondate hori. Hala eginez gero, esparru juridikoa aldatzeko aukera ere aurreikusten zuen.



OLABERRIKO UDALA  
AYUNTAMIENTO DE OLABERRIA  
(GIPUZKOA)

1990-02-15ean EAEko Eusko Legebiltzarra izan zen aldarrikatu zuena Euskal Herriak bazuela autodeterminaziorako eskubidea, hau da, lurralde honetako biztanleek bazutela eskubidea demokratikoki eta libreki erabakitzeko nolako estatus politiko, ekonomiko, sozial eta kulturala izan nahi zuten.

Entzun izan ditugu, horrelako proposamen eta aldarrikapenek zatitu egiten dute gizarte hau, gizartearen zati bat bestearen aurka jartzen dute; edo, gizartearen zati bat kanpoan uzten dute. Urtetan entzun dugu indarkeria zela oztopoa; indarkeriarik ezean, egitasmo politiko guztiak izango zirela zilegi.

Kanadako Konstituzioak ez zuen autodeterminazio eskubiderik aurreikusten, baina bi bider galdetu zaie Quebecarrei Kanadaren zati izaten jarraitu nahi duten ala ez. Oso antzeko bidea egin du Groenlandiak ere. Hango biztanleen gehiengo zabalak eman zion baiezkua independentziari atea zabaltzeko aukerari. Baina alderdi politiko guztiek zuten konpromisoa hartua herritarren iritzia errespetatzekoa.

Eta zer esan Eskoziatz? Londresko gobernua saiatuko zen eskoziarrek independentziaren aldeko botorik eman ez zezaten, baina ez du inondik inora erreferenduma galarazi. Ikusiko dugu datorren urtera begira (2020.Urtea) zer gertatzen den. Londresekin nolako harremana nahi duten erabakitzeko eskubidea emango zaie, itxura guztien arabera, Eskoziako gizon-emakumeei. Europak, jakina, ez du hitz erdirik esango.

Horren guztiaren indargarri, Hagan egoitza duen Nazioarteko Justizia Auzitegiak 2010ean ebatzi zuen nazioarteko legeriak ez duela independentzia aldarrikapena debekatzen; estatuen arteko harremanari dagokion auzia da.

Norbaitek uste badu erabakitzeko eskubidea zerbait anekdotikoa dela, datu bat:

- **1900. Urtetik, 106 erreferendun egin dira.**
- **1991tik 54 galdeketa egin dira.**

**“ La única manera que tiene los ciudadanos del mundo de protestar ante las decisiones que consideran injustas es ejercitando derechos fundamentales, como el derecho de manifestación o la libertad de expresión. Se ha luchado mucho por poder preservar derechos fundamentales. El derecho a la huelga se gana haciendo huelga, el derecho a manifestación se gana manifestándonos. Marcelino Camacho sindicalistak esana. Y el derecho a votar como se quiere hacer en Cataluña, se gana votando.”**

1886ko Maiatzaren 1ean sindikalari batzuk greba bat hasi zuten Chicagon zortzi orduko lanaldia eskatzeko. Hiru egun pasa ondoren greba lehertzeko zortzi langile epaitu eta bost langile hil zituzten. 1908an New Yorken 123 emakume bizirik erre zituzten beraien eskubideen defentsan greban zeudelako. Eta gaur Kataluniako herriari bere erabakitzeko eskubidea gauzatzearatik, 9 politikariei 100 urteko kartzela ezarri die.

Eskoziari herri galdeketa berri bat prestatzen ari diren bitartean, legala izango dena eta nazioarteko komunitateak onartua, ez da posible Europa barruan sedizio delitua bezela epaitzea Katalunian.



**OLABERRIKO UDALA**  
**AYUNTAMIENTO DE OLABERRIA**  
**(GIPUZKOA)**

Ez da ezerren ezta inorren kontra bozkatzen. Ez da Kataluniarren arazoa, ezta independentismoaren arazoa. Demokrazia eta askatasunaren arazo bat da, eta dena hemen hasten da. Ez dugu independente izan nahi soilik bandera batengatik, ez dugu independenteak izan nahi soilik etnizismoagatik, independenteak izan nahi dugu herri eta herritar libreak izango dituenak. Eta ez gara libre sentitzen. Norbanako eskubideak zein kolektiboak autodeterminaziorako eskubidean errekonizituak izatea dugu erronka. Ez da kataluniaren arazoa, Espainiaren oinarritzko askatasunen arazo bat da.

**Eta aztertzeko beste gairik egon gabe, Alkate jaunak bukatutzat ematen du bilkura 18:30-ak direnean, eta nik, Udalbatzako Idazkariak, adierazitako guztiaren Akta egiten du**

**Y sin más asuntos por tratar, el Sr. Alcalde da por terminada la sesión cuando son las 18 horas y 30 minutos, y yo, Secretaria de la Corporación, expido el Acta de todo lo manifestado.**

**ALKATEA / EL ALCALDE**

**IDAZKARIA / LA SECRETARIA**